



 **LG**  
**B1300**

**Telefonoaren  
erabilera-gida.**

 **LG**

# Aurkibidea

<b>Segurtasunari buruzko jarraibide garrantzitsuak .....</b>	<b>6</b>
<b>Sarrera .....</b>	<b>9</b>
<u>Telefonoaren zatiak.....</u>	<u>9</u>
<u>Teklatuaren deskribapena.....</u>	<u>10</u>
<u>Eseleipen alfanumerikoa .....</u>	<u>12</u>
<u>Pantailako adierazleak.....</u>	<u>13</u>
<b>Funtzionamendurako oinarritzko jarraibideak .....</b>	<b>16</b>
<u>Bateria ateratzea .....</u>	<u>16</u>
<u>SIM txartelaren instalazioa .....</u>	<u>17</u>
<u>SIM txartela ateratzea.....</u>	<u>18</u>
<u>Bateriaren instalazioa .....</u>	<u>18</u>
<u>Kargagailua konektatzea .....</u>	<u>19</u>
<u>Deia egitea.....</u>	<u>20</u>
<u>Sarbide-kodeak / PIN kodeak.....</u>	<u>20</u>
<u>Deiari erantzutea .....</u>	<u>21</u>
<u>Entzungailuaren bolumena doitzea .....</u>	<u>21</u>
<u>Zenbaki batera berriro deitzea.....</u>	<u>21</u>
<u>Markaketa bizkorra .....</u>	<u>22</u>
<u>Deia zain (operadoreak aukera hau eskaini behar du).....</u>	<u>22</u>
<u>Multikonferentzia, .....</u>	<u>22</u>
<b>Menuko funtzioak.....</b>	<b>23</b>
<u>Nola erabili menuko funtzioak.....</u>	<u>23</u>
<u>Menuaren egitura.....</u>	<u>24</u>
<b>Menuko funtzioak eta deskribapena .....</b>	<b>27</b>

<u>Telefono-aurkibidea</u> .....	27
Ikustea.....	27
• Aukerak .....	27
Sortzea.....	28
Ezabatzea .....	29
Memoria .....	29
Guztia kopiatzea .....	29
Guztia ezabatzea .....	30
Neurria .....	30
Norberaren zenbakia.....	30
Taldeak.....	30
<u>Mezuak</u> .....	31
SMS irakurtzea.....	31
SMS bidaltzea .....	32
Aurrez definitutakoa bidaltzea.....	32
Ezabatzea .....	32
Toki librea .....	32
Konfigurazioa .....	32
• Ahots-postontzia.....	33
• Desp. auto.....	33
• SMS zentroa .....	33
• Baliozkotasuna.....	33
• Txostena.....	34
Ahots-postontzira deia .....	34
Igortzea .....	34
• CB irakurtzea .....	34
• Desp. auto.....	34
• Iragazkia.....	34
<u>Soinu-profila</u> .....	36
Aldatzea .....	36
• Teklen soinua .....	36
• Tinbrearen soinua .....	36
• Tinbrearen bolumena .....	37
• Bibrazioa .....	37
• Info tonuak .....	37
• SMS tonua .....	37

• Zerbitzuaren tonua .....	37
<u>Konfigurazioa .....</u>	<u>38</u>
Bolumena .....	38
Erlojua .....	38
• Ordua ezartzea .....	38
• Data ezartzea .....	38
• 1. alarma .....	39
• 1. alarma aldatzea .....	39
• 2. alarma .....	39
• 2. alarma aldatzea .....	39
• Orduaren formatua .....	39
Hizkuntza .....	39
Deia zain .....	39
Edozein tekla .....	40
Berriro deitzea .....	40
Identifikazioa erakustea .....	41
Agurra .....	41
Atzeko argia .....	41
Pantailaren kontrastea .....	41
Sarrera-metodoa .....	41
Pantaila-babesa .....	41
Erantzun automatikoa .....	42
Konfigurazioa berrezartzea .....	42
<u>Deien informazioa .....</u>	<u>43</u>
Azken deia .....	43
Dei guztiak .....	43
Automatikoki erakustea .....	43
Minutu oro abisatzea .....	43
Kostuaren informazioa .....	44
• Kostu osoa .....	44
• Kostuaren muga .....	44
• Prezioak .....	44
Deien memoria .....	44
<u>Desbideratzea .....</u>	<u>45</u>
Berriro bidaltzea .....	45
Estaldurarik ez .....	45

Erantzunik ez .....	46
Dei guztiak .....	46
Komunikatzen .....	46
Egoera.....	46
Guztiak bertan behera uztea.....	46
<b><u>Segurtasuna .....</u></b>	<b><u>47</u></b>
Murrizketak.....	47
• Guztiak murriztea .....	47
• Nazioartekoak murriztea (irteerakoak) .....	47
• Nazioartekoak jatorrizko herrialderakoak salbu .....	
(irteerakoak, jatorrizko herrialderakoak salbu) .....	47
• Sarrerakoak murriztea.....	47
• Nazioartekoak desplazamendukoak salbu.....	
(atzerriko sarrerako deiak) .....	47
• Egoera.....	48
• Guztiak bertan behera uztea.....	48
• Pasahitza aldatzea.....	48
Zenbaki finkoak .....	48
PIN1 aldatzea.....	48
PIN1 aktibatzea .....	49
PIN1 desaktibatzea .....	49
PIN2 aldatzea.....	49
Teklatua blokeatzea .....	49
SIM blokeatzea .....	49
• Blokeatzea .....	50
• PCK aldatzea .....	50
<b><u>Sarea .....</u></b>	<b><u>51</u></b>
Metodoa aukeratzea .....	51
Bilaketa berria .....	51
Sarea aukeratzea.....	51
<b><u>Aurreratua.....</u></b>	<b><u>52</u></b>
Tonua editatzea .....	52
• Editatzea .....	52
• Tempo.....	53
• Erreproduzitzea.....	53

• Ezabatzea .....	53
Kalkulagailua .....	54
Egutegia .....	54
Munduko erlojua (atzerriko ordua) .....	54
Jokoak .....	55
• Punch .....	55
• Tetris .....	55
• Minak .....	55
Zuzeneko sarbidearen tekla .....	55
• Definitu gabe .....	56
• Soinuaren profila .....	56
• SMS irakurtzea .....	56
• Ahots-postontzira deitzea .....	56
• Zuzeneko markaketa .....	56
• Teklatua blokeatzea .....	57
• Egutegia .....	57
<b><u>Nola erabili MENUA telefonoz hitz egiten ari zarela .....</u></b>	<b>58</b>
Bolumena .....	58
Konferentzia .....	58
• Deia amaitzea .....	58
• Txandakatzea .....	58
• Deia zain uztea .....	59
• Zain dagoen deia hartzea .....	59
• Deiak batzea .....	59
• Dei pribatua .....	59
Izenak .....	59
• Telefonoko izenak .....	60
• Deien memoria .....	60
• SMS bidaltzea .....	60
• SMS irakurtzea .....	61
<b>Deiaren uneko menua .....</b>	<b>62</b>
<b>Aurrez definitutako zuzeneko sarbidearen teklen definizioa .....</b>	<b>65</b>
<b>Bateria .....</b>	<b>66</b>
<b>Zainketa eta mantentze-lanak .....</b>	<b>68</b>

## Segurtasunari buruzko jarraibide garrantzitsuak

Irakurri arretaz segurtasunari buruzko informazio garrantzitsu hau.

Jarraibide hauek betetzen ez dituen erabiltzaileak telefono mugikorraren zerbitzua gal dezake eta, horrez gain, bere kontrako ekintza legalak bidera daitezke.



### ***Bide-segurtasuna***

Ez erabili telefono mugikorrik ibilgailu bat gidatzen ari zarenean. Bide-segurtasuna bermatzeko, aparka ezazu zure ibilgailua telefono mugikorra erabili nahi baduzu.



### ***Funtzionamendu-eremua***

Irrati-transmisorako ekipo mugikorrek –besteak beste, telefono mugikorrek– interferentziak sor ditzakete eta arrisku-egoerak eragin. Beraz, toki bakoitzeko arautegi bereziak betetzea gomendatzen dugu. Itzali telefono mugikorra berori erabiltzea debekatuta dagoen tokietan.



### ***Ez erabili ospitaleetan***

Telefono mugikorrek erabiltzeak eragina izan dezake medikuntzaren esparruko hainbat tresnatan, tresna horiek ospitaleetan behar besteko babesik ez dutenean. Zauden tokian zaudela, bete itzazu beti telefono mugikorrei buruzko arautegi bereziak eta itzali telefonoa beharrezkoa denean.



### ***Ez erabili hegazkinetan***

Hegazkinetan telefono mugikorrek erabiliz gero, irrati bidezko seinaleetan eta transmisioetan interferentziak sor daitezke. Beraz, hegaldiaren segurtasuna arriskuan jar dezakezu. Ziurtatu telefono mugikorra itzalita duzula hegazkinera igo baino lehen. Deskonektatu hegazkinera igo aurretik. Segurtasuna erabatekoa izateko, kendu bateria telefonoari, hala, ohartu gabe pizteko arriskurik ez izateko.



### ***Ez erabili gasolina-zerbitzuguneetan***

Gasolina-zerbitzuguneetan telefono mugikorra itzaltzea komeni da.



### ***Ez erabili leherketaren bat gerta daitekeen tokietan***

Lantegi kimikoetan, erregaien biltegietan edo banaketa-eremuetan nahiz lehergailuak erabiltzen dituzten tokietan ere telefono mugikorrei buruz adierazi ditugun aholkuak kontuan izan behar dira.



### ***Erabilera estandarra***

Zure telefono mugikorraren erabilera egokia izan dadin, ekipoa funtzionamendu estandarrerako moduan erabili behar duzu.





### ***Mantentze-lan egokiak***

Zure telefono mugikorra konpontzeko edo mantentzeko lanei dagokienez, horretarako baimena eta gaitasuna duten pertsonak baino ez dituzte egingo. Gaizki egindako instalazioa edo konponketa arriskutsua izan daiteke.



### ***Osagarriak***

Erabili soilik telefonoaren fabrikatzaileak onartutako osagarriak.




### ***Larrialdi-deiak (SOS)***

SIM txartelik (abonatuaren identifikazio-modulua) ez izan arren, zure telefono mugikorretik larrialdi-deiak egin ahal izango dituzu sarearen zerbitzu-eremuaren barnean. Larrialdi-dei bat egiten duzunean beharrezko informazio guztia eman behar duzu: zure izen--abizenak, telefono-zenbakia eta larrialdia gertatu den tokia; informazio hori ahal duzun modu zehatzenean eman behar duzu.

# Sarrera

## Telefonoaren zatiak



## Teklatuaren deskribapena



Zeinu positiboa duen teklak, onartzeko teklaren moduan erabil daitekeenak, berrespenak egiten ditu, deiak egiten edo hartzen ditu, berriro deitzen du eta aukeraketak egiten ditu.



Zeinu negatiboa duen teklak, bertan behera uzteko teklaren funtzioa duenak, deia eteten du, agindua bertan behera uzten du eta menuetik irteteko balio du. Tekla hau telefonoa pizteko ere erabiltzen da.



Zuzeneko sarbidea telefono-aurkibidearen menuan sartzeko.



Ezabatzeko teklak karaktereak ezabatzen ditu, teklen pultsazioak bertan behera uzten ditu eta menuetik irteten da deia jasotzeko/egiteko egoeran geldituz. tekla sakatzean digituak banan-banan ezabatuko dira, baina sakatuta edukiz gero, pantailako karaktere guztiak ezabatuko dira. Dei bat egiterakoan, bi segundoz sakatuz gero esku libreko modua aktibatuko da. Desaktibatuzeko, sakatu berriro. Funtzio hau dei bat egiten dugunean baino ez da aktibatuko.



Gora eta behera egiteko kurtso-reteklek menuetan eta azpimenuetan, aukeretan eta konfigurazioan mugitzeko aukera ematen dute.



Karaktere alfanumerikoak dituzten teklak mezu laburrak, izenak eta telefono-zenbakiak editatzeko erabiltzen dira.



**▲** Nazioarteko kodea erabiltzeko, tekla sakatuta eduki '0' aldatu eta "+" agertu arte. ('0 t') karakterea nazioarteko sarbide-kodearen ordean erabiltzen da).



# t eta # t funtzio-tekla bereziak dira. Teklatua blokeatzeko funtzioa aktibatzeko, # t tekla sakatu behar duzu 2 segundo baino gehiago. Zuzeneko sarbidearen tekla hau telefonoa deia jasotzeko/egiteko egoeran dagoenean soilik da baliozkoa. Teklatuaren blokeoa kentzeko, sakatu # t edo, bestela, sakatu # t, 4 ghl desblokeatzeko. Horrez gain, menu honek deiak egiteko hainbat zenbakitara modu azkarrean sartzeko aukera ematen du.

Hona hemen prozedura:

1. Telefonoa deia jasotzeko/egiteko egoeran dagoela, sartu zenbaki bat eta lotu telefono-aurkibideko zenbakiekin.
2. Sakatu # t deia egiteko.



Telefonoaren menua deia jasotzeko/egiteko egoeran dagoenean, \* gh tekla 2 segundo baino gehiago sakatuta, bibrazioa aktibatzen da eta modu isilera igarotzen da. \* gh tekla berriro sakatzen duzunean, bibrazioaren profila desaktibatu egingo da eta modu arruntera itzuliko da.

## Esleipen alfanumerikoa

Teklatu alfabetikoa eta zenbakizkoa esleitzeko sistema taula honetan ageri da:

Length Digit	Letra larrien modua	Letra xeheen modua
1	Espacio, ( , ), 1	Espacio,( , ), 1
2	A, B, C, 2, Ä, Å, Æ, Ç	a, b, c, 2, ä, å, æ, ç
3	D, E, F, 3, É	d, e, f, 3, é, è
4	G, H, I, 4,	g, h, i, 4, ì
5	J, K, L, 5	j, k, l, 5
6	M, N, O, 6, Ñ, Ö	m, n, o, 6, ñ, ö, ò
7	P, Q, R, S, 7, ß	p, q, r, s, 7, ß
8	T, U, V, 8, Ü	t, u, v, 8, ü, ù
9	W, X, Y, Z, 9,	w, x, y, z, 9
0	+, -, 0	+, -, 0
*	* , . , , ; : ' " , _ , @ , < , > , !	
#	# , = , ? , \$ , & , % , / , \$ , ¥ , £	

1. Letra larrietatik xeheetara (eta alderantziz) aldatzea tekla sakatuta mantentzen dugun denboraren arabera da.
2. Edizio-moduan zenbaki baten tekla sakatzean karaktere bat (letra larritz) agertuko da pantailan. Letra xeheak txertatzeko nahi duzun letraren karakterea sakatu eta sakatuta eduki letra larria xehe bihurtu arte.

3. Gainerako tekla letra xehez agertuko dira letraren tekla berriro luze sakatu arte, orduan berriro letra larriak agertuko dira.
4. Taulan ageri diren karaktereen edo sinboloen eta telefonoan agertzen direnen artean alderik egongo balitz, erabili telefonoaren pantailan agertzen direnak.

### ***Pantailako adierazleak***



Ondorengo ikonoak pantailan agertuko dira funtzioak aktibatzen diren heinean.



Ikono honek bateriaren kargaren maila erakusten du. Zenbat eta barra gehiago eduki, orduan eta karga handiagoa izango du telefono mugikorrak. Barra gorantz eta beherantz mugitzen da kargatzen ari denean.



Ikono honek telefonoa beste sare bat erabiltzen ari dela adierazten du (desplazamendu-zerbitzua edo “roaming”)



Ikono honek telefonoaren teklatura blokeatuta dagoela adierazten du. Jarraitu pantailan agertzen diren aginduei.



**Hutsik:** mezu labur bat jaso duzula adierazten du.

**Beteta (kolore iluna):** mezuen memoria beteta dagoela adierazten du. Gorde nahi ez dituzun mezuak berehala ezabatzea gomendatzen dugu.



Une horretan zauden tokian seinaleak duen potentzia adierazten du. Barra zenbat eta altuagoa izan, orduan eta hobe izango da jasotako seinalea.



Alarma aktibatu dela adierazten du.



Esku libreko kita konektatu dela adierazten du.



Tinbrea desaktibatu dela adierazten du (modu isila aktibatuta da).



Dei bat duzula adierazten du.



Bibrazio-modua aktibatu dela adierazten du.



Irakurritako mezua duzula adierazten du.



Irakurri gabeko mezua duzula adierazten du.



Mezu bat bidali duzula adierazten du.





Bidali gabeko mezu bat duzula adierazten du.



## Funtzionamendurako oinarrizko jarraibideak

### ***Bateria ateratzea***


1. Sakatu  telefono mugikorra itzaltzeko.
2. Sakatu botoi txikia eta ireki bateriaren tapa irudian ikus daitekeen moduan.
3. Atera bateria irudian ikus daitekeen moduan.



## ***SIM txartelaren instalazioa***

SIM txartela instalatu baino lehen, egiaztatu telefonoa itzalita dagoela. SIM txartela instalatzeko:


1. Atera bateria. Bateria ateratzeko jarraibideak errespetatu.
2. Ezarri txartela SIM txartelaren gordelekuan eta kontuan izan urre-koloreko konektoreek beherantz begira egon behar dutela. Mugitu SIM txartela lotzeko gailua eta lotu txartela.



## ***SIM txartela ateratzea***


SIM txartela ateratzeko:

1. Atera bateria. Bateria ateratzeko jarraibideak errespetatu.
2. Loturatik tira egin SIM txartela ateratzeko.



## ***Bateriaren instalazioa***

1. Sartu bateria gordelekuan irudian ikus daitekeen moduan eta bateria beherantz bultzatu.
2. Itxi berriro tapa irudian ikus daitekeen moduan eta dagokion tokian kokatu arte mugitu.




## **Kargagailua konektatzea**

Kargagailua telefono mugikorrera konektatzeko:


1. Instalatu bateria. Bateria instalatzeko jarraibideak errespetatu.
2. Konektatu kargagailua telefono mugikorrera irudian ikus daitekeen moduan.
3. Erabili kargagailu egokia edo telefonoarekin bateragarria den kargagailu bat.
4. Ez atera bateria edo SIM txartela kargatzen ari den bitartean.





**Oharra:** Erabat hutsik dagoen bateria bat kargatzen baduzu, 20 edo 30 minutu igaro arte pantailan ez da ezer agertuko. Bateria karga-ikonoa denbora hori igaro ondoren agertuko da. Zure telefonoarekin batera emandako bateria guztiz kargatu behar da erabiltzen hasi baino lehen.

100V~240V



## Deia egitea



1. Itzali telefonoa eta instalatu SIM txartela. SIM txartela instalatzeko jarraibideak errespetatu.
2. Bateria hutsik baldin badago, telefonoa bidaiarako kargagailura konekta dezakezu eta hori erabil dezakezu.
3. Sakatu . Pantailak PIN kodea sartzeko eskatzen badizu, sartu SIM txartelaren kodea edo sakatu  edo .
4. Sartu telefono-zenbakia areako kodearekin batera eta sakatu  bidaltzeko.

## Sarbide-kodeak / PIN kodeak




### PIN eta PIN2 (4-8 digitu)

Sarearen hornitzaileak PIN kodea (Identifikazio Pertsonaleko Zenbakia) emango dizu telefonoarekin eta SIM txartelarekin batera, baimenik gabe erabiltzea eragozteko. SIM txartela sartuta edukita, telefonoa pizten duzun bakoitzean PIN kodea eskatuko dizu. PIN kodea hiru aldiz segidan gaizki sartzen bada, telefonoa blokeatu egingo da edo, bestela, desaktibatu egingo da. Orduan sare--hornitzaileari telefonoa desblokeatzeko edo kodea berriro aktibatuzeko PUK kodea erabiltzeko eskatu beharko diozu. PIN2 kodea beste funtzio batzuetarako ere erabiltzen da, adibidez, markaketa finkorako eta deiak debekatzeko.


## **PUK eta PUK2 (8 digitu)**

Blokeatuta dagoen PIN kodea aktibatzeko, PUK kodea (Desblokeatzeko Norberaren Pasahitza) behar da. Eskatu kode hori sare-hornitzaileari.




### ***Deiari erantzutea***

Dei bat jasotzen duzunean tinbrea entzungo duzu. Sakatu  erantzuteko. Sakatu  deia amaitzeko. “Contestar con cualquier tecla” funtzioa aktibatu baldin bada, sakatu EDOZEIN TEKLA,  izan ezik, deiari erantzuteko.


### ***Entzungailuaren bolumena doitzea***

Sakatu  bolumena handitzeko edo txikitzeko, dei bat egiterakoan bolumenaren menuan sartu ondoren.



### ***Zenbaki batera berriro deitzea***

Sakatu  zenbaki batera berriro deitzeko. Erabili  deitu nahi duzun zenbakia aukeratzeko. Markatu nahi duzunean, erabili  tekla.

## **Markaketa bizkorra**








Telefono-aurkibidean sartutako zenbaki bat erabiltzeko, sartu telefono-aurkibidean duen kokapena eta gero sakatu .

## **Deia zain (operadoreak aukera hau eskaini behar du)**

Dei bat egiten ari zaren bitartean  sakatzen baduzu, dei hori zain utzi eta beste dei bat egin ahal izango duzu. Bigarren deiaren lotura eginda duzula, berriro  sakatzen baduzu bi deiak txandakatu ahal izango dituzu.

## **Multikonferentzia**

Multikonferentzia-zerbitzuak aldi berean pertsona batekin baino gehiagorekin hitz egiteko aukera ematen dizu.

1. Abonatu batek dei bat egiten du.
2. Dei horren komunikazioa lortu duenean, dei hori zain utz dezake “Poner en espera” tekla sakatuz.
3. Sakatu  eta gero sakatu .
4. Egin berriro 2. eta 3. urratsak konektatutako deiak txandakatzeko.
5. Sakatu  deia amaitzeko.  
 x  sakatuta, deia komunikatzaile bakar batekin konektatzen da; deia amaitzeko, berriz,  x  sakatu behar da.


**Oharra:** “X” karaktereak komunikazioko sekuentzia jakin bati egiten dio erreferentzia.

# Menuko funtzioak

## Nola erabili menuko funtzioak






Menuak doikuntza eta hobekuntza txikiak egiteko zenbait funtzio ditu.





 sakatuta, telefono-aurkibidean sartuko zara.




 sakatuta, menuko funtzioan sartuko zara.  tekla sakatuta, menu batetik bestera joateko aukera izango duzu.




 sakatuta, menuan sartuko zara eta azpimenu bat aukeratu ahal izango duzu.




 sakatuta, aurreko menura itzuliko zara.



 sakatuta, menuko funtzioetik irtengo zara.



## Menuaren egitura.



Config.
Volumen
Reloj
Estab. hora
Estb. fecha
Alarma1
Rest. al. 1
Alarma 2
Rest. al. 2
Formato hora
Idioma
Llam. espera
Cualq. tecla
Rellamada
Mostrar id.
Saludo
Luz fondo
Contr. pant.
Método entr.
Base English
T9 English
T9 French
T9 Spanish
T9 Russia
T9 Hungary
T9 Polish
Salvapant.
Resp. auto.
Rest. conf.

Info llam.
Última llam.
Todas llam.
Mostr. auto
Aviso min.
Info coste
Coste total
Est. coste
Precios
Mem. llam.

Desviar
Reenviar a
Sin cobert.
Si no resp.
Todas llam.
Si comunica
Estado
No coverage
If no reply
All calls
If busy
Canc. Todas

## Seguridad

- Restric.
- Restr. tod.
- Rest. int.
- Int exc dom.
- Rest. entr.
- Int si itin
- Estado
  - Bar All Out
  - Bar All Int Out
  - Bar Intl Exc Home
  - Bar All In
  - Bar In When Roam
- Cancel. todas
- Cambiar contr.
- Núm. fijos
- Cambiar PIN1
- Activar PIN1
- Desac. PIN1
- Cambiar PIN2
- Bloq. tecl.
- Bloqueo SIM
- Bloquear
- Cambiar PCK

## Red

- Sel. método
- Nueva búsq.
- Sel. sec.

## Avanzado

- WAP
- Editar tono
  - Editar
  - Reproducir
  - Borrar
- Calculadora
- Calendario
- Reloj mund.
- Juegos
- Tec acc dir
  - Sin definir
- Perfil sonido
- Leer SMS
- Ll. buz. voz
- Marcado directo
- Bloq. tecl.
- Calendario

## Menuko funtzioak eta deskribapena


Ondoren, menu bakoitzaren erabilera deskribatzen da:

### Telefono-aurkibidea



Izenei eta telefono-zenbakiei dagokienez, telefonoan 100 sarrera gorde eta edita ditzake, eta 200 sarrera SIM txartelean.

#### Ikustea

Izen bat sartzen badugu, menuan izen hori bila dezake. Horrekin bat etorriko den lehenengo erregistroa agertuko da, aldez aurretik menuan sartu dugun izenen sekuentziaren arabera. Aukera bat aldatzeko edo editatzeko, sakatu  (Opciones) azpimenuan sartzeko.

#### **Aukerak**

##### • Deitzea

Dei bat zuzenean egiteko, azpimenu hau aukeratu behar duzu.

##### • Editatzea

Menuan sartu ondoren,  tekla erabil dezakezu editatzeko.



### • **Taldeak**

Kontsultatu 'Taldea' menua 30. orrialdean.

### • **SIMera kopia**




Menu honen bidez, telefono-aurkibideko sarrera bat SIM txartelean kopia dezakezu.

### • **Telefona kopia**



Menu honen bidez, telefono-aurkibideko sarrera bat telefonoan kopia dezakezu.

### Sortzea

Menu hau hautatuta, zure telefono-aurkibideko memorian izenak eta telefono-zenbakiak sortu eta gorde ahal izango dituzu. Telefono-aurkibideko memoriak gordetako izenak eta telefono-zenbakiak bilduko ditu. Telefono-aurkibideko zenbaki bat editatu nahi baduzu, zenbaki berria sartu eta automatikoki aurreko zenbakiaren ordezkari da. Lehenago beste zenbaki bat zegoen toki batean zenbaki berri bat sartzen badugu, toki horretan zegoen informazioa automatikoki ordezkari du informazio berriak. Izenak eta telefono-zenbakiak dituzten eremuak editatu egin daitezke zenbakizko sarrerentzako eta sarrera alfanumerikoentzako edizio-prozesu estandarrei jarraituz.

Eremu batetik bestera joateko,  teklak erabil daitezke. Elkarrizketa gorde nahi badugu,  sakatuko dugu; bertan behera utzi nahi badugu, berriz,  sakatuko dugu.

## Ezabatzea

Sakatu  telefono-aurkibideko sarrerren zerrendako elementu guztiak ezabatzeko. Sakatu  bertan behera uzteko.

## Memoria

(SIM txartelean/telefonoan) SIM txartelean aukeratzen bada, telefono-aurkibidean erregistro berri bat sortzean SIM txartelaren memoria erabiliko da. Bestela, telefonoaren memoria erabiliko da.

## Guztia kopiatzea

Telefonotik SIM txartelera: telefono-aurkibideko erregistro guztiak kopiatzen ditu telefonoaren memoriatik SIM txartelaren memoriara. Telefono-aurkibideko sarrerak telefonoan SIM txartelean libre dagoen memorian kopiatuko dira.

SIM txarteletik telefonora: telefono-aurkibideko erregistro guztiak kopiatzen ditu SIM txarteletiko memoriatik telefonoaren memoriara. Telefono-aurkibideko sarrerak SIM txartelean telefonoan libre dagoen memorian kopiatuko dira.

### Guztia ezabatzea

SIM txartelean: telefono-zenbakien memoria osoa ezabatzen du SIM txartetik.

Telefonoan: telefono-zenbakien memoria osoa ezabatzen du telefonotik.

### Neurria



Menu honek telefonoan nahiz SIM txartelean gordetako telefono-aurkibidearen neurria egiaztatzeko aukera ematen du. Gehienez 100 sarrera txerta ditzake telefonoan eta 200 SIM txartelean, baina SIM txartelaren memoriaren ahalmena aldatu egin daiteke zerbitzuaren hornitzailearen arabera.

### Norberaren zenbakia



Zure telefono-zenbaki pertsonala ikusteko eta editatzeko.

### Taldeak

Menu honek dei-motak bereizteko aukera ematen du, deien telefono-zenbakiak telefono-aurkibidean sartuta daudenean; bereizketa egiteko tinbre-tonu desberdinak erabiltzen ditu.

- Menuan sartu ondoren, talde bakoitzaren tinbrea eta ikonoa ezar ditzakezu;  sakatu behar da joan nahi dugun talderaino iristeko eta, gero,  sakatu tinbrearen eta ikonoaren balioetatik nahi duguna hautatzeko.

# Mezuak



Mezuen funtzioak aukeratzen ditu.

## SMS irakurtzea

Menu hau aukeratzen baduzu, 2 aukera dituen azpimenu batean sartuko zara: sarrerako postontzia eta irteerako postontzia.

2 aukera horietako bat hautatzean SIM txartelean gordeta dauden mezuen hasieren zerrenda agertuko da. edo irudiek irakurri gabeko mezu bat dagoela adierazten dute, edo irudiek mezua ez dela bidali, edo, bestela, mezua bidali edo irakurri den adierazten du.

sakatuta, muan maila bat atzerago eramango zaitu. sakatuta, aukeratutako mezuaren testua osorik ikusiko duzu.

sakatuz gero, testu batetik bestera joan ahal izango zara.

(Opciones) teklak azpimenu bat irekitzen du SMS ezabatzeko edo bidaltzeko.

Sarrerako postontziko mezuetatik beste menu batzuk erabili ahal izango dituzu (“Borrar”, “Reenviar”, “Responder”).





## SMS bidaltzea

Menu hau aukeratzean, mezua bidali nahi duzun helbidea sar dezakezu, testu labur batekin batera. Azpimenuko aukerak ikusteko, besteak beste, “Enviar”, “Enviar y almacenar” eta “Almacenar”, sakatu ... .

## Irudia duten mezuak

Irudia duten mezuen bidez irudiak dituzten testu-mezuak jaso eta bidal ditzakezu. Telefonoak aurrez definitutako irudiak dituzten hainbat mezu ditu. Funtzio hau sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak onartzen badu baino ezin da erabili.

## **Irudia duten mezuak bidaltzea**

- Irudia duten mezuen menuan, joan irudia duen mezu batera eta sakatu <descolgar>.
- Sakatu , menuan joan “Editar texto” aukerara eta sakatu <descolgar> testua txertatzeko. Testua aldatu ondoren, sakatu <Almacenar> testu-mezu hau gordetzeko.
- Sakatu , joan “Reenviar” aukerara eta sakatu <descolgar>; mezua bidali nahi duzun telefono-zenbakia sartu.

Oharra: Irudia duen mezu bakoitza hainbat testu-mezuz osatuta dago. Beraz, irudia duen mezu bat bidaltzea testu-mezu bat bidaltzea baino garestiagoa izan daiteke. Funtzio hau duten telefonoek baino ezin dituzte irudia duten mezuak jaso eta erakutsi.

## **Irudia duten mezuak hartzea**

- Telefonoak “Msje. con imagen recibido” erakusten duenean, sakatu <Ver> mezua berehala ikusteko. Mezua gorde dezakezu <Almacenar> sakatuta.

## **Operadorearen logoaren mezua:**

Telefonoak “Logo de operador recibido” erakusten duenean, sakatu <Ver> operadorearen logoaren irudia ikusteko. Sakatu <Almacenar> irudi hori operadorearen logo gisa erabiltzeko telefonoa aktibo ez dagoenean. Iruditik irteteko, sakatu <Cancelar>.

## **Tinbrearen tonuari buruzko mezua:**

Telefonoak “T timb recb” erakusten duenean, sakatu <Ver> eta mugitu menuan non gorde nahi duzun aukeratzeko. Tinbrearen soinua aldatzeko, tinbrearen tonua gorde.

### Aurrez definitutakoa bidaltzea

Menu hau aukeratzen baduzu, zerrenda batean aurrez definitutako mezu baten edukia aukeratu ahal izango duzu zuk zeuk idatzitakoaren orde.

Denbora asko aurreratuko duzu. Gainerako urratsak bidaltzeko egiten diren berak dira.

### Ezabatzea

Menu honek sarrerako edo irteerako postontzian aukeratutako mezua ezabatzen du.

### Toki librea

Menu honek SIM txartelaren memorian libre duzun tokiari buruzko informazioa ematen dizu.


### Konfigurazioa

Ondorengo aukerak ezar daitezke:

### **Ahots-postontzia**

Menu honek ahots-postontziko # zenbaki bat sartzeko aukera ematen dizu ahots-mezuetarako. Zenbakia SIM txartelean gordeko da. Menu honetan ahots-postontziko # zenbaki berri bat sar dezakezu edo aurrekoa alda dezakezu.

### **Desp. auto.**

Menu honek mezuak jasotzerakoan egin daitezkeen ekintzak kontrolatzen ditu. Aktibatuta baldin badago, mezua berehala irakurri ahal izango duzu. Aktibatu gabe baldin badago, pantailan ondoko irudia agertuko da:  .

### **SMS zentroa**

Menuko aukera honek mezu laburrak edo "SMS" mezuak sartzeko aukera ematen du; mezu horiek telefonoaren bidez beste erabiltzaile batzuei bidal daitezke sareko mezuen zerbitzuaren bidez, baina beharbada zure sarean ezingo duzu zerbitzu hori erabili.

### **Baliozkotasuna**

Menu honek irteerako mezuak mezuen zerbitzu-zentroan edo sarearen zerbitzuan zenbat denbora gordeko diren zehazteko aukera ematen dizu. Aurrez definitutako hainbat aukera izango dituzu. Hala ere, aukera horietako bat hautatzen ez baduzu, telefonoak zuk aurrez definitutako balio bat aukeratuko du automatikoki.

## **Txostena**

Menu honek zerbitzuko operadorearengandik SMSren entrega-txosten bat jasotzeko aukera ematen du. Menu hau aukeratu ondoren, telefonoak mezua iritsi den edo SMA mezua bidali ondoren akatsen bat egon den adieraziko dizu.

### Ahots-postontzira deia

Menu honek zure ahots-postontzira jotzeko eta bertara desbideratutako deiak entzuteko aukera ematen dizu.

### Igortzea

Gelaxkako difusioko (CB) mezu laburrak inguru jakin bateko telefono guztietara bidaltzen ditu sareak.

## **CB irakurri**

Jasotako azkeneko CB mezuak irakurtzeko aukera ematen du. Telefonoak piztuta egon behar du azkeneko mezua gordetzeko.

## **Desp. auto.**

“Mostrar automáticamente” funtzioa aktibatzeko eta desaktibatzeko aukera ematen du. Funtzioa aktibatuta dagoenean, igorritako mezuak automatikoki erakutsiko ditu. Gezidun teklen bidez, mezuan gora edo behera mugi zaitezke. “Acepta” edo “NO” teklak sakatzen badituzu, mezutik irtengo zara. Igorritako mezuak automatikoki desagertuko dira epe labur baten ondoren.

## **Iragazkia**

Funtzio honen bidez, zonen araberako igorpenen mezu-motak aukera ditzakezu. Iragazteko menuak sareko zerbitzuan definitzen diren CB mezu-moten kodeen zerrenda du.

**Bat ere ez**

Ezin du mezurik hartu.


**Guztiak**

Igorritako mezu guztiak har ditzake.

**Zerrenda**

Jaso nahi dituzun kanalen zerrenda erakusten du.

# Soinu-profila




Audio-konfigurazio guztiak multzokatuta daude eta gehien komeni zaizun taldea aukera dezakezu, zure beharren arabera. 6 talde desberdin daude: arrunta, isila, kanporakoak, autorakoa, bileretarakoa eta erabiltzaileak definitutakoa. Horietako bat aktibatzeko, aukeratu nahi duzun taldea eta, ondoren, aukeratu “Activar” menua. Konfigurazioa aldatzeko, aukeratu taldea eta, ondoren, “Modificar” menua hautatu.

## Aldatzea


### **Teklen soinua**

Teklen tonuen soinuak aktibatzeko eta desaktibatzeko.

### **Tinbrearen soinua**

Dagokion  teklarekin tinbrearen tonuen konfigurazioa aukera dezakezu. 15 tonu edo melodia daude aukeratzeko.

## **Tinbrearen bolumena**

Dagokion  teklaarekin tinbrearen tonuaren bolumena doi dezakezu.

## **Bibrazioa**

Bibrazio-modua aktibatze eta desaktibatze.

## **Info tonuak**

Hainbat egoerari buruzko informazioa ematen dute, adibidez, bateria hutsik dagoela adierazteko.

## **SMS tonua**

Menu honetan SMS (mezu laburra) mezua jaso duzula adierazten duen tonua aktibatzen eta desaktibatzen da.

## **Zerbitzuaren tonua**

Funtzio hau aktibatzen denean, telefonoak tonu bat sortuko du sare bat erabilgarri dagoenean.

## Konfigurazioa



Menu hau aukeratzean, telefono mugikorraren funtzioak aktibatu ahal izango dituzu.

### Bolumena

Entzungailuaren bolumena igotzeko edo jaisteko.

### Erlojua

Erlojuak data eta alarma ditu. Ordua eta alarma ezartzeko aukera ematen du.

### **Ordua ezartzea**

Ordua ezartzeko aukera ematen du. Formatua <hh:mm> da.

### **Data ezartzea**

Data ezartzeko aukera ematen du. Formatua <AA.MM.DD> da.

**Oharra:** Ezinezkoa da 99. 01. 01 baino lehenagoko datarik ezartzea.





## **1. alarma**

1. alarma ezartzeko aukera ematen du.

## **1. alarma aldatzea**

1. alarma aldatzeko aukera ematen du.

## **2. alarma**

2. alarma ezartzeko aukera ematen du.

## **2. alarma aldatzea**

2. alarma aldatzeko aukera ematen du.

## **Orduaren formatua**

Ordua aurkezteko formatua alda dezakezu.

## Hizkuntza

Hainbaten artean hizkuntza bat aukera dezakezu eta testuak zein hizkuntzatan agertzea nahi duzun ezar dezakezu.



## Deia zain

Deia zain izateko funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke.



sakatuta, hitz egiten ari zarela sartzen ari den beste dei bat entzun ahal izango duzu.

### Edozein tekla

Funtzio hau aktibatu gabe dagoenean, sartzeko zain dagoen deiari erantzuteko  sakatu behar duzu. Baina funtzio hau aktibatzen baduzu, sartzeko zain dagoen deiari erantzuteko telefonoaren edozein tekla sakatu besterik ez duzu,  izan ezik.

### Berrito deitzea

Berrito markatzeko funtzioa aktibatzeke eta desaktibatzeke aukera ematen du. Funtzio hau aktibatzen denean, dei bat egin eta hitz egitea lortzen ez baduzu, telefonoak mezu bat erakutsiko dizu zenbaki hori automatikoki berrito markatzea nahi duzun galdetuz. Ondoren, telefonoak behin eta berrito markatuko du zenbaki hori hitz egitea lortu arte. “No” aukeratzen baduzu, telefonoak zenbaki hori automatikoki ez markatzeko agindua jasoko du. Abisua desagertu egingo da. Automatikoki markatzeko eskaera edozein unetan bertan behera utz dezakezu, esate baterako, beste zenbaki batera deitu nahi baduzu edo berrito markatzeko tenporizadorea martxan baldin badago.

### Identifikazioa erakustea

Funtzio honek CLIR zerbitzu osagarria (deietan identifikazioa murriztea) aktibatzen edo desaktibatzen du. Deitzen ari garen telefonoaren pantailan norberaren telefono-zenbakia agertzea saihets genezake hala. Ez desaktibatu sareak deiazen identifikazioa desagerrarazteko funtzioa baduela ziur ez bazaude.

### Agurra

Menu honek telefonoa pizten duzunean agur bat jartzeko aukera ematen du.

### Atzeko argia

Funtzio honen bidez, 10 segundoz atzeko argia aktiba dezakezu tekla bat sakatu orduko edo sarrerako dei bat sartu orduko.

### Pantailaren kontrastea

LCD pantailarako kontrasterik onena aukera dezakezu.

### Sarrera-metodoa

Menu honek erabili nahi duzun sarrera-metodoa aukeratzeko modua emango dizu.


## **T9**

Telefono-aurkibidean edo postontzian izen bat edo beste edozein testu sartu nahi baduzu, testua sartzeko funtzioa erabil dezakezu T9 aukeraren bidez, honek erabiltzaileei testua azkar eta erraz sartzeko modua ematen baitie.

## Testua sartzea T9 erabiliz

Telefonoaren tekla erabiliz, karaktereak sar ditzakete erabiltzaileek, kontuan hartuta karaktere bakoitzeko behin sakatuko dela. T9 moduak pultsazioak ezagutuko ditu, “teklen sekuentzia aktiboa” deritzona osatuz, eta datu-basean dituen hitzekin bat datozenak egiaztatuko ditu.

## Zenbakien sarrera





 tekla luze sakatuta, zenbakiak sar daitezke honen bidez.

## T9 moduaren erabilera

T9 testu prediktiboa sartzeko moduak hitzak ahalik eta tekla gutxien sakatuz txertatzeko aukera ematen du. Tekla bat sakatzen den bakoitzean, telefonoak idazten ari den hitzaren letrak aukeratzen ditu, daraman hiztegiak baliatuz.

Adibidea:

Gaztelaniazko T9 testua sartzeko moduan HELLO idazteko, sakatu 

 ,  ,  eta  .


Oharra:

1. Sarrera gorde gabe testua sartzeko modutik irteteko, sakatu “Salir”.  
Telefonoa aurreko leihoaren mailara itzuliko da.
2. Zure telefonoak beste hizkuntza batzuk eta testuak sartzeko T9 moduak onartzen baditu, sakatu “Opción” aukera T9-ko beste modu bat aukeratzeko.
3. Letra larri eta xehetan hiru aukera daude:
  - Letra xehez
  - Lehena letra larriz
  - Letra larrien blokeoa

Sakatu tekla behin edo gehiagotan pantailaren beheko aldean letra larrien eta xeheen adierazlea ikusteko eta jarraitu ohiko moduan idazten.

### **Zenbakien moduaren erabilera**

Zenbakien moduak testu-mezu batean zenbakiak txertatzeko aukera ematen du (adibidez, telefono-zenbaki bat).

1. Eduki sakatuta idatzi nahi duzun zenbakiari dagozkion tekletako bat.
2.  tekla sakatuta eduki.

### Pantaila-babesa

Menu honek pantaila-babesa aktibatze eta desaktibatze aukera ematen du.



### Erantzun automatikoa

Erantzun automatikoaren funtzioa aktiba eta desaktiba daiteke honen bidez. Funtzio hau aktibatzen denean, sarrerako deiak automatikoki onartuko dira, esku libreko kita edo ibilgailuko kita konektatzen denean.

### Konfigurazioa berrezartzea

Fabrikazioko doikuntzak ezartzen ditu berriro.

## Deien informazioa



Menu honek sarrerako eta irteerako dei guztien kostua eta iraupena grabatzen ditu, orduak, minutuak eta segundoak adieraziz.

### Azken deia

Azken deiaren iraupena erakusten du.

### Dei guztiak

Sarrerako eta irteerako dei guztien iraupen osoa erakusten du.

### Automatikoki erakustea

Deia amaitu ondoren automatikoki honen iraupena ikusteko aukera ematen du.


### Minutu oro abisatzea

Zu zauden dei horretan pasatzen den minutu bakoitzeko soinu txiki bat entzun dezakezu, abisu modura.

### Kostuaren informazioa

Zure sareak deien kostuari buruzko informazioa ematen badu, deia amaitzen duzunean dei horren kostua agertuko da.

## **Kostu osoa**

Dei guztien kostu osoa erakusten du.  sakatuz balio hori zeron jarriko da.



## **Kostuaren muga**

Kostu osoari gehienezko muga bat jartzeko aukera ematen du. Muga jarritz gero eta gaindituz gero, ezin izango da dei gehiago egin.



## **Prezioak**

Prezioak sartzeko aukera ematen du. Hau aukeratuz, sarrera-eremu desberdinak hauta ditzakezu.

## Deien memoria

Funtzio honek aukera ematen dizu zure telefonoan azken 20 deiei buruzko informazioa gordetzeko  erabil dezakezu erregistro batetik bestera joateko  erabiliz, markatzeko azpimenuan sar zaitezke edo erregistro bat telefono-aurkibidean erregistra dezakezu.

## Desbideratzea






Sarrerako deiak zure telefono-zenbakitik beste zenbaki batera bideratuko dira. (Telefono-zenbakia sareari esleitzen zaio, ez telefonoari).

### Berriro bidaltzea

Funtzio honekin lan egiteko, erabaki deiak zein telefono-zenbakitara desbideratu nahi dituzun eta sartu zenbaki hori. Deia desbideratzeko zenbakirik zehazten ez bada, “Desviar” menuko beste azpimenu batzuk agertuko dira.

### Estaldurarik ez




Zure telefonoa sarearen zerbitzu-eremutik kanpo dagoenean edo itzalita dagoenean, sarrerako deiak desbideratzeko aukera emango dizu. Soilik  edo  sakatuz, funtzio hori aktiba edo desaktiba dezakezu.  sakatuz, funtzio horretatik irtengo zara.



### Erantzunik ez

Erantzuten ez diren deiak desbidera ditzakezu.

### Dei guztiak

Sarrerako dei guztiak desbidera ditzakezu. Funtzio hau aktibatzeke edo desaktibatzeke, sakatu  edo  .  sakatuz, funtzio honetatik irtengo zara.

### Komunikatzen

Zure telefonoan dei bat duzunean beste dei bat jasoz gero, bigarren dei hori desbidera dezakezu.


### Egoera

Menu hau aukeratzen duzunean, sareko desbideratze-egoeraren berri jasoko duzu. Sareak desbideratzeen eta berorien egoeraren zerrenda bat bidaliko dizu.

### Guztiak bertan behera uztea

Deiak desbideratzeko aktibatu diren modu guztiak desaktibatzen edo bertan behera uzten ditu.

# Segurtasuna



Menu honen bidez, erabiltzailearen segurtasun-aukerak konfigura daitezke.

## Murrizketak

Sarrerako eta irteerako deiak murrizten ditu.

## **Guztiak murriztea**

Ez du irteerako deirik egiten uzten.

## **Nazioartekoak murriztea (irteerakoak)**

Ez du irteerako nazioarteko deirik egiten uzten.

## **Nazioartekoak jatorrizko herrialderakoak salbu (irteerakoak, jatorrizko herrialderakoak salbu)**

Atzerriko herrialde batean gaudenean, ez du nazioarteko irteerako deirik egiten uzten (desplazamendu-zerbitzua edo “roaming”). Dei lokalak edo jatorrizko herrialdera zuzenduak soilik egin daitezke.

## **Sarrerakoak murriztea**

Ez du sarrerako deirik hartzen uzten.

## **Nazioartekoak desplazamendukoak salbu (atzerriko sarrerako deiak)**

Atzerrian egonez gero, ez du sarrerako deirik jasotzen uzten (desplazamendu-zerbitzua).

## **Egoera**

Deien inguruko debekuen egoera azaltzen du.

## **Guztiak bertan behera uztea**

Deien debeku guztiak bertan behera uzten ditu.

**Oharra:** Baliteke zure sareak zerbitzu hau ez eskaintzea. Gainera, zerbitzu hau eskuratu ahal izateko, sareko kodea beharko duzu.

## **Pasahitza aldatzea**

Deien debeku edo murrizketa bat egin ahal izateko, pasahitza behar duzu. Menu honen bidez, murrizketen pasahitza alda dezakezu. Zure zeinuaren hasierako konfigurazioa zein den jakiteko, jarri harremanetan zerbitzu-operadorearekin, mesedez.

## Zenbaki finkoak

Funtzio honen bidez, telefono-aurkibidean markaketa finkorako grabatutako zenbakiak soilik marka ditzakezu. (PIN2 zenbakia eskatuko du).

## PIN1 aldatzea

PIN1 zenbakia aldatuko du.

### PIN1 aktibatzea

PIN1 zenbakia aktibatuko du. Telefonoa pizten duzunean, PIN1 zenbakia eskatuko dizu.



### PIN1 desaktibatzea

Honen bidez, ez du PIN1 zenbakia eskatuko.

### PIN2 aldatzea

PIN2 zenbakia aldatzeko aukera emango du.

### Teklatua blokeatzea

Telefonoaren teklak nahi gabe ez sakatzeko, teklatua blokeatuko du. Funtzio hau aukeratuz gero, tekla guztiak automatikoki desaktibatuko dira azken tekla sakatu eta 10 segundo pasatzen direnean. Dei bat jasoz gero  edo  tekla sakatuz gero, berriro aktibatuko da.

### SIM blokeatzea

SIM txartel jakin bat erabiliz gero telefonoa blokeatzeko aukera izango duzu. Telefonoa galduz gero beste norbaitek beste SIM txartel batekin erabili ez dezan diseinatu da funtzio hau.

## **Blokeatzea**

SIM txartelaren blokeo-funtzioa aktiba daiteke.



## **PCK aldatzea**

PCK kodea alda daiteke.

**Oharra:** Fabrikatzaileak fabrikan bertandefinitutako PCK bat emango du (0000).

**Oharra:** PIN1 aktibatuta dagoenean, bai 'Cambiar PIN1' eta bai 'Desactivar PIN1' ordenan agertuko dira pantailan. Bestalde, ezin da PIN1 aldatu hori desaktibatuta baldin badago.

## Sarea



Menu honek zure telefonoak erabiliko duen sarea aukeratzeko eta bertan erregistratzeko aukera emango dizu.

### Metodoa aukeratzea

Telefonoa pizten duzunean, eskura dituen sareak bilatzen ditu eta horietako bat aukeratzen du. Zuk zeuk ere zerrendatik nahi duzun sarea aukera dezakezu.


### Bilaketa berria

Erabil daitezkeen sareak bilatzeko eta bat aukeratzeko modua ematen du.

### Sarea aukeratzea

Zerrendan dauden sareak gehitu, kendu edo alda daitezke honen bidez.

## Aurreratua



Erabiltzailearentzat oso erabilgarriak diren funtzioak.

### WAP

WAP arakatzaillearen bidez, aldatutako Internetera jo dezakezu. WAP menuan, arakatzailetik web gunera sartzeko 4 modu daude.

- Sakatu Internet, aukeratutako konfiguraziotik hasierako orrian sartzeko.
- Sakatu “Ir a URL” eta idatzi web orriaren helbidea, Interneten sartzeko.
- Sakatu “Marcador”, gordetako web orrian sartzeko.

Arakatzten ari denean, ondoren agertzen diren funtzioetan sartzeko, sakatu aukera-tekla:

- Web orria sartzeko: beste WAP orri zehatz batean sartzeko.
- Atzera: aurreko WAP orrira sartzeko.
- Berrir kargatzea: berrir WAP orria kargatzen du.
- Irtetea: aukera-teklara irteten da.
- Internet mugikorra: lehenengo WAP orrira joaten da.
- Markatzaileak: joango den markatzailearen datuak aukeratzen dira.
- Markatzaileak eranstea: WAP orri hori markatzaileari eransten dio.

- Helbidea sartzea: Interneten sartzeko WAP orriaren helbidea sartzten du.
  - Hasierako orri berria: hasierako orri gisa WAP orri hori aukeratzen du.
- Oharra: Arakatzailera erabili aurretik, egiaztatu data comm. kontua konfiguratu duzula.

## **WAP**

Internet

Markatzailea

Push datuak

URLra joatea

Aukeratzea

Cachea ezabatzea

Egiaztagiria

Konfigurazioa

### **5.1 Internet**

Hasierako orrialdera joan daiteke honen bidez.

### **5.2 Markatzaileak**

Markatzaileen bidez, zure WAP gustukoena aukera dezakezu.

- Markatzailea sartzea
  - Ikusi zure guneguztiak markatzailetik.
  - Sakatu zuzenean “S” tekla.
  - Aukera-teklaren bidez, aukeratu “Cargar marcador”, “Editar marcador” edo “Eliminar marcador”.



- Markatzailea eransteko sarrera
  - Editatu izenburua eta helbidea.
  - Datuak gordetzeko, sakatu “Aceptar”.
  - Markatzailea gehitzeko aukeratik irteteko, sakatu “Cancelar”.
- Markatzailea kentzea.
  - Aukera-tekla sakatu eta aukeratu “Eliminar marcador”.
  - Irteteko, sakatu “Cancelar”.
- Markatzaile guztiak kentzea.
  - Markatzaile guztiak kentzeko, aukeratu “Si”.
  - Irteteko, sakatu “No”.

### **5.3 Push datuak**

Baliteke zure sare-zerbitzuko konpainiak eguneratutako berriak bidaltzea edo zure telefonorako berria den zerbitzu baten berri ematea Push mezu baten bidez.

### **5.4 URLra joatea**

Internet bidez sartu nahi duzun edozein WAP helbide sar dezakezu.

### **5.5 Aukeratzea**

Interneteko WAP konfigurazioa eta hasierako orria aukera ditzakezu eta Interneten sartzeko datu-dei bat egin dezakezu. Sistemak 5 WAP konfigurazio onartzen ditu.

### **5.5 Cachea ezabatzea**

Menu honen bidez, cache memoria garbi daiteke.

### **5.6 Egiaztatzea**

WAP jakin batetik egiaztatzeak jaits ditzakezu edo zerbitzu-hornitzaileen bidez jaso ditzakezu.

## **5.6 Konfigurazioa**

- Push Konfigurazioa

Sakatu “Acceptar”, Push zerbitzua konektatzeko edo deskonektatzeko.

- 1 konfigurazioa

Aukeratu 1 konfigurazioa

Telefono-zk.:	: WAPeko CSD datu-deiaren zenbakia.
Erabiltzailearen IDa	: WAPeko CSD datu-deiaren erabiltzailearen IDa (PPPPrako euskarriarekin).
Erabiltzaile-pasah.	: WAPeko CSD datu-deiaren erabiltzailearen pasahitza (PPPPrako euskarriarekin).
Markaketa-mota	: WAPeko CSD datu-deia RDSI edo analogikoa da.
Lot. ateko IDa	: Lotura-atearen erabiltzailearen IDa (Interneteko zerbitzu-hornitzaileak emana).
Lot. ateko pasah.	: Sartu lotura-atearen erabiltzailearen pasahitza (Interneteko zerbitzu-hornitzaileak emana).
Lot. ateko IPa	: Sartu lotura-ateko IP helbidea (Interneteko zerbitzu-hornitzaileak emana).
Hasierako orria	: Sartuko hasierako orriaren helbidea.
Segurtasun-denb.	: WAParen jarduerarik ezari dagokion denbora.
Segurtasun-konfig.	: Aktibatu edo desaktibatu segurtasun-funtzioa.












Datuen modua : Aukeratu konexioa egiteko modua  
(konexioa/konexiorik gabe)

### Tonua editatzea

Menuan txirrin-soinua aukeratzen denean, doinu berri bat sortzeko aukera ematen du funtzio honek.

### **Editatzea**

Menu honek txirrinak aurrez definituta duen tonua editatzeko edo aldatzeko aukera ematen du. Hona hemen tekla bakoitzaren funtzioa deskribatuta:

- (1)  ,  –  : tekla hau nota berri bat eransteko erabiltzen da: ‘Do’, ‘Re’ ~ ‘Mi’, etab.; horretarako, hurrenez hurren “1, 2, 3, 4, 5, 6, 7” teklak sakatu behar dira.
- (2)  : tekla hau tonu altua, ertaina edo baxua aukeratzeko erabiltzen da, ondoren adierazten den moduan: “ **ī**, **l**, **!** ”.
- (3)  : tekla honek erritmoaren iraupena zehazten du. Erritmoaren lau iraupen-mota ditugu: “1/4, 1/8, 1/16, 1/32 ” eta “ **-**, **=**, **≡** ” hurrenez hurren.
- (4)  : tekla honek isilune bat eransteko aukera ematen digu eta ‘0’ sakatuz azaltzen da.
- (5)  : tekla honek nota horren aurreko erritmoaren iraupenaren erdia eransteko aukera ematen du eta ‘.’ sakatuz azaltzen da.
- (6)  : tekla honek nota horren aurreko erritmoaren iraupenaren laurdena eransteko aukera ematen du eta ‘-’ sakatuz azaltzen da.
- (7)  : tonuerdi bat bada, tekla hau berau aukeratzeko erabiltzen da.
- (8)  : tekla hau nota bat ezabatzeko erabiltzen da.
- (9)  : tekla hau doinuaren azkartasuna aldatzeko erabiltzen da.

(10)  : tekla hau aurrez doinua gorde ondoren irteteko erabiltzen da.

(11)  : tekla hau doinua gorde gabe irteteko erabiltzen da.

### **Erreproduzitzea**



Menu honek aurrez definitutako txirrin-mota erreproduzitzen du.

### **Ezabatzea**

Menu honek aurrez definitutako txirrin-mota ezabatzeko aukera ematen du.

## Kalkulagailua

Batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa errazak egin ditzake.



Eragiketak aukeratzeko, sakatu ; dena den,  luze sakatuta, batuketak egin ahal izango ditugu.

## Egutegia

Egutegiko informazioa egunero eta hilero egiaztatzeko aukera ematen du funtzio honek. Aukera-tekla erabiliz, hauek dituzu aukeran: “escribir una nota en un día”, “ver una nota de un día”, “borrar una nota de un día” edo “ver todas las notas de un día”.

Egun batean ohar bat idatzi ondoren, gogoratu behar duzun horretaz abisu emateko alarma bat edo SMS mezu bat eslei diezaiokezu.







## Munduko erlojua (atzerriko ordua)

Munduan zehar nonahi zaudela ere ordua ikusteko aukera ematen du funtzio honek. Zu zauden hiri bat, edozein, aukera dezakezu eta erlojuak automatikoki ordua erakutsiko dizu,  aukeratuz eta “Aceptar”  eginda.

## Jokoak







Atal honetan joko batzuk daude. Menuko laguntza-funtziara jo behar da nola jolastu jakiteko.

## **Punch**





Funtzio-teklak:  (goiko ezkerreko alde),  (goiko eskuineko alde),  (erdialdea),  (beheko ezkerreko alde),  (beheko eskuineko alde),  (amaitu jokoak).

## **Minak**






Digitu batek inguruan zenbat mina dituen adierazten du. Sakatu tekla hauek:

 (gora),  (behera),  (ezkerrera),  (eskuinera),  (ireki),  (blokebat markatu).





## **Zaldunak**

Dardoak eta kateak erabiliz bolak suntsi ditzakezu. Sakatu , ,  eta  ezkerrera mugitzeko, eskuinera mugitzeko, dardoak jaurtitzeko edota kateak erabiltzeko.










## **Odol-gerra**



Egin tiro etsaiari zure begien aurrean azaldu orduko. Sakatu ,  eta  mugitzeko eta  eta  tiro egiteko edo lehergailuak jaurtitzeko.

## **Arrano-ehiztaria**

Jan ezazu oilaskoa eta sar iezaiezu eztenkada zakurrei gorotza jaurtiz. Sakatu , ,  eta  teklak ezkerrera edo eskuinera joateko, jateko eta jaurtitzeko.

## Zuzeneko sarbidearen tekla

Zenbakien tekla bakoitzari (, , , , , , , , ) menu honetako funtzio zehatz bat esleai diezaiokezu. Adibidez, deietarako ahots-zerbitzua, zuzeneko markaketa, etab.

Funtzio zehatz bat esleitzeko, luze sakatu zenbaki-tekla telefonoa deia jasotzeko/egiteko egoeran dagoenean. Menu horretan sartzen zarenean,  sakatuz zuzeneko sarbidearen tekla bakoitzaren funtzioa ikus dezakezu.  sakatuz, teklari funtzio berri bat esleituko zaio. Eskura ditugun funtzioak hauek dira:

### **Definitu gabe**

Zuzeneko sarbidearen teklak funtziorik ez duela adierazten du.

### **Soinuaren profila**

Soinu zehatz baten profila aukera dezakezu. Adibidez, modu isila.

### **SMS irakurtzea**

Menu honek sarrerako/irteerako mezuak irakurtzeko aukera emango dizu. Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikus 33. orrialdea.

### **Ahots-postontzira deitzea**

Dituzun ahots-mezuak entzuteko, ahots-postontzira deitu behar duzu.

### **Zuzeneko markaketa**

Zenbaki zehatz batera deitzen ari zarela, zeuk sar dezakezu zenbakia edo telefono-aurkibidetik aukera dezakezu.

## **Teklatua blokeatzea**

Teklatuaren blokeoa aktiba edo desaktiba dezakezu.

## **Egutegia**

Funtzio honek egutegiko informazioa egunero eta hilero egiaztatzekoa aukera emango dizu. Aukera-tekla erabiliz, hauek dituzu aukeran: “escribir una nota en un día”, “ver una nota de un día” edo “ver todas las notas de un día”. Egun batean ohar bat idatzi ondoren, gogoratu behar duzun horretaz abisu emateko alarma bat edo SMS mezu bat eslei diezaiokezu.



## ***Nola erabili MENUA telefonoz hitz egiten ari zarela***

Dei bat edo batzuk egiten ari zarenean, zenbait funtzio erabil ditzakezu. Hauek dira: **Bolumena, Konferentzia, Izenak, Telefonoko izenak, Deien memoria, SMS bidaltzea eta SMS irakurtzea.**

**Oharra:** Konferentzia ez beste funtzioei dagokienez zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikusi edukien taula.

### Bolumena



sakatuz, solasaldiaren bolumena igo edo jaitsi egin dezakezu.

### Konferentzia

#### **Deia amaitzea**

Bi solaskide baino gehiagoko dei batean, deietako bat aukeratu edo amai dezakezu. Uneko dei aktiboa zain utz dezakezu.

#### **Txandakatzea**

Uneko dei aktiboa zain uzteko eta une horretan zain duzuna aktibo jartzeko.

### **Deia zain uztea**

Uneko dei aktiboa zain jartzeko.

### **Zain dagoen deia hartzea**

Une horretan zain dagoen deia hartzeko eta aktibo bihurtzeko.

### **Deiak batzea**

Uneko deia zabalduz zain dagoen deia dei horri batzeko (unekoa + zain zegoena). Deien gehienezko kopurua sarearen operadoreak zehaztuko du.

### **Dei pribatua**

Bi solaskide baino gehiagoko dei batean zaudenean, dei guztien artetik bat aukera dezakezu eta dei aktibo bihur dezakezu. Gainerako guztiak zain geratuko dira.



### Izenak

SIM txartelean gordetako izen bat ikusteko edo bilatzeko aukera ematen du. Funtzio honek menuko “Ver” aukeraren ezaugarri berak ditu (ikus 27. orrialdea).


### Telefonoko izenak

Telefonoan gordetako izen bat ikusteko edo bilatzeko aukera ematen du. Funtzio honek menuko “Ver” aukeraren ezaugarri berak ditu (ikus 27. orrialdea).

### Deien memoria

Funtzio honek azken hogeit hamar deiak memorian gordetzen ditu.  erabiliz erregistroen zerrenda mugitu zaitezke.  erabiliz azpimenuan sartu zaitezke edo erregistro bat telefono-aurkibidean sartu dezakezu.





### SMS bidaltzea




Menu hau aukeratuta, mezua beste mezurik labur batekin batera bidali dezakezu. Azpimenuaren aukerak ikusteko, besteak beste, “Enviar”, “Enviar y almacenar” eta “Guardar”, sakatu .

## SMS irakurtzea

Menu hau aukeratzen baduzu, 2 aukera dituen azpimenu bat txerta dezakezu: sarrerakoak eta irteerakoak.


Bi aukera horietatik bat hautatzen duzunean, une horretan SIM txartelean gordeta dituzun mezuen hasieren zerrenda bat agertuko zaizu.

 eta  irudiek mezua ez dela irakurri edo bidali adierazten dute.  eta  irudiek mezua irakurri edo bidali dela adierazten dute.

 sakatuz, menuan maila bat atzera egingo duzu.  sakatuz, aukeratutako mezuaren testu osoa ikusiko duzu.  sakatuz, testu batetik bestera mugi zaitezke.

## Deiaren uneko menua

Dei bat duzunean, funtzio hauek erabil ditzakezu:

Bolumena, Konferentzia, SMS bidaltzea, Esku libreko funtzioa, etab. Dei bat egiten duzunean, aukera-teklaren bidez deiaren uneko menuan sar zaitezke eta, ikusteko,  tekla erabil dezakezu.

### 1. Bolumena

Deiaren bolumena doitzeko aukera ematen du. Gora joateko teklaren bidez bolumena igotzen da. Behera joateko tekla sakatuz, bolumena jaisten da. Behera joateko tekla muturreraino sakatuz, telefonoa modu isilean gelditzen da.

### 2. Dei aktiboa amaitzea

Funtzio hau oraindik aktiboa den dei bat eskegitzeko erabiltzen da. Dei aktibo bat eta zain dagoen dei bat badituzu, funtzio honen bidez aktiboan dagoen deia eskegiko da eta zain zegoen deia hartuko da.

### 3. Zain dagoen deia amaitzea

Zain dagoen deia amaitu ahal izango duzu. Dei aktibo bat eta zain dagoen dei bat badituzu, funtzio honen bidez zain zegoen deia eskegi egingo da eta dei aktiboan jarraituko duzu.

### 4. Multikonferentziako dei bat amaitzea

Konferentziako dei bat baduzu, aukera honen bidez eskegi nahi duzun telefonoa hautatuko duzu. Konferentziako deirik ez baduzu, ez du deia eskegiko.

## **5. Esku libreko funtzioa**

Aukera horren bidez, esku libreko aukera aktiba edo desaktiba dezakezu. Esku libreko funtzioa aktibatzea aukeratuz gero, eskuak erabili beharrik gabe hitz egin daiteke telefonoz. Esku libreko funtzioa desaktibatzen bada, bozgorailua desaktibatuta egiten da eta entzungailuaren modura aldatzen da.

## **6. Konferentzia**

Konferentziako dei bat ere egin dezakezu. Zure telefonoan dei aktibo bat eta zain dagoen dei bat badituzu, bi solaskideekin konferentziako dei bat osa dezakezu. Dei horretan zain dauden beste dei batzuk ere sar ditzakezu, bost gehienez.

## **7. Izenak**

Dei bat egiten duzunean telefono-aurkibidean sar zaitezke. Aukera honetaz baliatuz, telefono-aurkibidea ikusi ahal izango duzu. Deia telefono-aurkibidea erabiliz egin zenezake, edo deiaren uneko menura itzul zaitezke.

## **8. Deien memoria**

De bat egiten ari zaren unean deien memoria ikus dezakezu. Hau aukeratuz gero, deien memoria ikusiko duzu. Deien memoria erabiliz dei bat egin dezakezu edo deiaren uneko menura itzul zaitezke.

## **9. SMS bidaltzea**

Dei bat egiten ari zaren unean SMS mezu bat igor dezakezu. Aukera honen bidez, mezu berri bat txerta dezakezu. Menu normalean mezu bat igortzea bezalaxe da.

## **10. Dei pribatua**

Konferentziako dei bat baduzu, dei horietako bat bereiz dezakezu. Aukera hau hautatuz, konferentziako dei guztiak ikusiko dituzu eta bereizi nahi duzuna hautatu ahal izango duzu.

## Aurrez definitutako zuzeneko sarbidearen teklen definizioa

Erlazionatutako funtzioak aktibatzen, zuzeneko sarbidea duten tekla bereziak sakatu behar dituzu:

1. “\*☎” sakatuta edukita: telefonoa deiak jasotzeko/egiteko egoeran dagoela, “\*☎” 2 segundo baino gehiago sakatuta edukita, bibragailua aktibatzen da eta modu isila aukeratzen da. Berrir “\*☎” sakatuta, bibragailua desaktibatzen da eta egoera normalera itzultzen da.
2. “#B” sakatuta edukita: 2 segundo baino gehiago “#B” sakatuta edukita, blokeo-funtzioa aktibatzen da. Zuzeneko sarbidearen tekla horiek ezin dira erabili egoera ez-aktiboan. Teklatuaren blokeoa desaktibatzen da eta, beraz, desblokeatzeko, #B sakatuta eduki edo sakatu #B, \*B.
3. “C” sakatuta edukita: dei bat egiten ari zaren unean bi segundo baino gehiago “C” sakatuta edukita, telefonoaren esku libreko bozgorailua aktibatzen da. Esku libreko bozgorailua desaktibatzen da, sakatu berrir “C”. Funtzio hau soilik dei bat duzun unean egin daiteke.



## Bateria

- Telefonoa berriro karga daitekeen bateria batez elikatzen da eta hori askotan karga daiteke. Hala ere, telefonoaren bateriaren errendimendua murriztu egingo da pixkana erabilerarekin. Karga gutxi duenean bete bateria. Bateria erregulartasunez kargatuz eta hustuz, gehiago iraungo du eta hobeto lan egingo du.
- Kargagailua erabiltzen ari ez bazara, kendu korrante-hartunetik. Ez utzi astebete baino gehiago bateria kargagailuari konektatuta. Gehiegi kargatuz gero, bateriaren bizialdia murriztu egiten da.
- Muturreko tenperaturek kalte egin diezaiokete bateriari. Egoera batzuetan beharrezkoa izan daiteke hoztea edo berotzea. Bateriaren temperatura 40 °C-tik gorakoa bada, ez da kargatuko.
- Ez erabili hustuta edo egoera txarrean dauden bateriak.
- Bateria egin den xede horretarako bakarrik erabili. Metalezko gauza batek zuzenean terminalak (+/-) ukitzen baditu, baterian zirkuitulaburra gerta daiteke.

- Ez utzi bateria oso leku beroetan edo oso leku hotzetan. Hori eginez gero, bateriak gutxiago irauteko arriskua dago. Oso tenperatura altuetan edo oso tenperatura baxuetan dauden bateriek telefonoak ondo lan egitea eragotz dezakete, baita bateria goraino kargatuta badago ere. Bateria leku freskoetan eduki (15 °C-tik 25 °C-ra).
- Bateriak erabili ondoren birziklatu. Ez bota sutara.

## Zainketa eta mantentze-lanak

Telefono mugikorra behar bezala zaindu behar duzu. Iradokizun hauek zure telefonoa hobeto zaintzen lagunduko dizute.

- Ez utzi telefonoa eta horren osagaiak haurren eskueran.
- Eduki telefonoa lehor, isurkariak dituzten mineralek zirkuitu elektrikoak honda baititzakete.
- Oso beroak diren lekuetatik urrundu. Temperatura altuek tresna elektrikoan iraupenari kalte egin diezaiokete, plastikoak urtu ditzakete eta bateriak kalteak jasan ditzake.
- Ez utzi telefonoa zero azpiko tenperaturetan.
- Telefonoa oso hotzak diren lekuetatik babestu.
- Ez saiatu telefonoa irekitzen edo desmuntatzen. Gauza horietaz ezer gutxi dakitenek telefonoa ireki edo manipulatu gero, kalte egin diezaiokete.
- Ez erabili gai urratzaileak, garbiketarako disolbatzaileak edo detergente kontzentratuak telefonoa garbitzeko. Zapi leun batekin edo hezetasun apur bat duen oihal-zati batekin garbitu telefonoa.
- Jarraibideetan adierazitako bateria edo fabrikatzaileak eman dizuna erabili.

# Adostasun-deklarazioa



**LG Electronics**

Modelo honek 1999/5/EE (R&TTE) Europako araudiaren 3. artikuluaaren oinarritzko baldintzak betetzen ditu, egoki erabiltzen bada.

1. Osasuna (R&TTE araudiaren 3.1.a artikulua)
2. Segurtasuna (R&TTE araudiaren 3.1.a artikulua)
3. Bateragarritasun elektromagnetikoa (R&TTE araudiaren 3.1.b artikulua)
4. Irrati-maiztasunaren espektroaren erabilera eraginkorra (R&TTE araudiaren 3.2 artikulua)

Honen bidez eta erantzukizun guztiak geure eginez, goian adierazitako produktuak, deklarazio honen xede denak, aipatutako araudiko artikulua betetzen dituela adierazten dut.

Harremanetarako pertsona idatz diezaiekezu.

**Mr. Jin Seog, Kim**  
**LG Amsterdam Branch Office**  
**Capronilaan 6, 1119 NR Schiphol-rijk,**  
**The Netherlands**  
**(Tel.) +31-20-655 7774**

**Mr. Ji Jong, Jeon**  
**LG Electronics Inc. GSM Division**  
**Emerald BD, 1042 Hoge-Dong, Dongan-Gu**  
**Anyang-city, Kyuonki-Do**  
**431-080, Korea**

# CE 0189



 **Euskaltel**  
*mòvil*

*mòvil*

